



# NATIONAL txintxarriGRAPHIC

## Lasarte-Oriako oihaneko altxorak

Irudimenaren lur aberatsean barrena esploratu dute herritarrek inauterietan / 2-5

TXINTXARRI

**Merkealdia**  
Azken egunak

**2mó 189€**

lehen 229€  
erreflexuen aurkako  
betaurreko **progresiboak**

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

**MULTIÓPTICAS**

943 37 74 55  
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

www.multiopticas.com

# Osteguna 8 eta ostirala 9

Udal Musika Eskolako ikasleek piztu zituzten oihaneko piztiak eta baita lasarteoiatarren imajinazioa ere, kultur etxeko auditorioan kontzertu bufoa emanda. Ohiko moduan solfeoa nahiz instrumentoren bat jotzen ikasten ari diren ikasleek azken asteetan landutako piezak partekatu zituzten ikus-entzuleekin. Egun berean, ostegunean, Sasoeta ikastetxeok inauteri festa ospatu zuten patioan, hurrengo egunetik aurrera gozatzeko bost jaiegun izan zituztelako aurretik. Garaikoetxea eta Landaberri ikastetxeek, berriz, ostiralean aurrera eramán zituzten ospakizunak eta baita Gazte Kluba eta Amaraun Kluba egitasmoetako gazteok ere, Okendoko karpan.



Ikasle gazteek ekin zioten kontzertu bufoari, borobilean. TXINTXARRI



Aurkezle mexikarra. TXINTXARRI



Gitarra izan zen kontzertuan jotako instrumentuetako bat. TXINTXARRI



Lantzeko inauteriak ospatu zituzten Garaikoetxean, urtero lez. TXINTXARRI



Landaberriko ikasleek anfiteatroa bete zuten. TXINTXARRI



Sasoetako talde hau pirataz mozorrotu zen. TXINTXARRI



Oriarte Landaberriko festa ederra. TXINTXARRI



'Photocall'-ean argazki asko atera zituzten. TXINTXARRI



King Africa, abesten. TXINTXARRI



Primeran pasa zuten gazteok. TXINTXARRI



Begiraleek ere ikuskizuna egin zuten. TXINTXARRI

# Larunbata 10

Lasarte-Oria azaleraz udalerrri txiki samarra izanagatik, bertako oihana esploratzea ez da ordu erdian egiten den gauza bat, eta, horregatik, lantaldeak Oihana Basotxo kazetaria eta Oihan Palmer argazkilaria "fitxatu" zituen.

Tribu basatien dantzek euria erakartzeko balio omen zuten, baina aurreko egunetan halakorik izan bazen eguzkiari bertara zedin deitzeko izango zen. Karlotta boraskak, ordea, antizikloiz mozorrotzeko gogo gutxi zuen, antza, eta lurra bustiz hasi zuen goiza. Lasarteoriatarrak gogaituko zituela uste bazuen, ordea, ez zekien norekin ari zen. Asetan edo azken momentuan prestatutako jantziak soinean kalera irten, eta festarako grina beste behin erakutsi zuten herritarrek. Inauteriak izanda, zer da euri pixka bat?



Inauteriek beti uzten dituzte irudi bitxi askoak, esate baterako, kriskitin eta moja kuadrilla honena. TXINTXARRI



Amalurra, irribarretsu. TXINTXARRI



Tribu ugari bizi dira Lasarte-Oriako oihanean. TXINTXARRI



Haur nahiz heldu, primeran pasa zuten guztiek. TXINTXARRI



Esploratzailez bete ziren herriko kaleak. TXINTXARRI



Animalia asko ikusi genituen, adibidez, hegazti koloretsuak. TXINTXARRI



Tabernariak jo eta su lan egin zuten egun osoan. TXINTXARRI



Giro ederra jarri zuten Oaintxe in deu! txarangakoek. TXINTXARRI



'El Conquistador del Fin del Mundo' telesailekoak gure herrian izan ziren grabatzen, moskito eta guzti. TXINTXARRI



Aterpea merkatarien elkarteko kideek osatu zuten mozorro lehiaketako epaimahaia. TXINTXARRI



Faktoriako gazteek aurrera eramán zuten bazkalosteko superbingoa. TXINTXARRI



Intzak Parranda tribua, Kale Nagusia zeharkatzen. TXINTXARRI



Txirula jo beharrik gabe dantzatu zuten Biyak Bateko sugeek. TXINTXARRI



La Tribu konpartsakoek martxa ederra dutela erakutsi zuten. TXINTXARRI



Jalgune elkarteko lagunak, dena ematen. TXINTXARRI



Frenetics konpartsakoak, Addams familiaz mozorrotuta. TXINTXARRI



Sasoeta Sasoianekoak kongarekin animatu ziren. TXINTXARRI



Esploratzaile hau ozta-ozta libratu zen sugearen hozkada pozoitsutik. TXINTXARRI



Bollywood-eko aktoreak gure herrian izan ziren grabatzen. TXINTXARRI



Animaliek badakite sokasaltoan ibiltzen. TXINTXARRI

# Igandea 11

Aurreko egunekoaren ondoren oraindik ere gogoa eta indarra izan zutenek inauterietako igandiaz gozatzeko aukera izan zuten. Goizean LOZETeko erraldoi eta buruhandiek kalejira egin zuten herrian barrena zenbait familia eta gaztetxok. Zoologiko ibiltari itxura zuen horrenbeste animalia elkarrekin baitzebiltzan. Erraldoiei antifazak jarri bazizkieten, buruhandiek ez zuten ez apaingarri ez mozorrorik erabili, eta ohi bezala, maskuria astinduz korrika jarri zituzten. Arratsaldean, dantzarako aukera izan zuten Okendoko karpan, DJ Nikok jarritako doinuekin. Adinekoei begirakoa bazen ere, gaztetxoak ere animatu ziren. Biyak Bateko konpartsan parte hartu zutenetako batzuk ere bertaratu ziren Okendo plaza atzealdeko karpara.



LOZETen buruhandi eta erraldoiek erdigunea zeharkatu zuten herritar ugariarekin batera. TXINTXARRI



DJ Nikoren doinuekin dantza egin zuten igande arratsaldean. TXINTXARRI

# Astelehena 12

Asteburuko kalejirak, dantzaldi eta bestelako hainbat ekimenetan gozatu eta gero, puzgarrietan igaro zuten astelehen goiza lasarteoriar gaztetxoek. Mozorroak jantzi eta Loidibarren pilotalekura joan ziren bertako jolasez gozatzera. Tren txikian eta bizpahiru puzgarrietan ibili ziren salto eta salto, baina, horrez gain, hala nahi izan zuenak aurpegia margotzeko aukera izan zuten edota puxika luze eta koloretsuekin egindako figuratxoa jaso zuten opari.

Iaz berreskuratutako ohiturari jarraiki sardina ehortzi eta erreta eman zieten amaieran aurtengo inauteriei, Frenetik konpartsa kideek antolatutako hileta ekitaldia aurrera eramanda. Okendo plaza izan zen irteera eta helmuga gune. Ondoren, LOZETeko kideek bi zezensuzko atera zituzten Kale Nagusira.



Asteleheneko jaieguna puzgarri eta jolas artean igaro zuten gaztetxoek. TXINTXARRI



Jende ugari parte hartu zuen sardinaren ehorzketan. TXINTXARRI



Sardina sutan eta zezensuzkoa. TXINTXARRI

**AVENIDA**  
taberna

**LAS ARTE-ORIA**  
ARGAZKI LEHIAKETA

**txintxarri**

**Bidali argazkiak:**  
[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) / [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)  
 646 82 44 66 Whatsapp zenbakira

otsailaren 25era arte

**EPAIMAHAIAREN GUSTOKOENA**  
Avenida taberna/jatetxean bi menu

**IRAKURLEEN BOZKATUENA**  
Avenida tabernako patata tortilla eder bat

# Herriko puntu beltzak ezabatzen ari da udala

Lehen faseko lanak hilabete amaierarako bukatuko dituztela aurreratu du Zerbitzuak departamentuko zinegotzi David Mateosek. Argiztapen eskaseko eremuak ezabatu eta LED argiak jartzeko lan horiengatik 419.173 euro ordainduko ditu udalak

## Txintxarri

Argiztapen eskasa duten puntu beltzak ezabatzen eta argiteria-ten teknologia berritzen (LED argiak instalatuta) ari da Lasarte-Oriako Udala, hiru fasetan. Lehenengoa hilabete amaieran amaituko da eta 419.173 euroko aurrekontua du, Agustin Valdivia alkateak eta Zerbitzuak departamentuko zinegotzi David Mateosek azaldu dutenez. Zortzi gunetan ari dira lanean: Brunet-Enea, Askatasuna, Somoto eta Zumaburu parkeak; Gaztainzulo, Geltoki eta Uistin kaleak; eta Plazaolako bidea (Loiditik). Horietan guztietan obrak "erritimo onean" doazela baieztatu dute udal ordezkariak. "Luminariak hilabete bukaerarako ordezkatzeko ditugu, eta, erremateak, martxo amaieran".

Esan bezala, berritasun nagusietako bat argiteria aldatu eta LED teknologia erabiltzearena da. "Hasieran eman dezake argi gutxiago dagoela eremu horietan, baina kontua ez da hori, baizik eta oinezkoen bidea argiztatuko dutela eta ez inguruko eraikinak. Argi kutsadura murriztearekin batera efizientzia energetiko handiagoa lortuko dugu", azaldu du Mateosek.

Argiteria horiek Scada izeneko programarekin kudeatuko



David Mateos eta Agustin Valdivia, Mirentxuko farola baten alboan. TXINTXARRI

dituzte, bi antenaren bitartez. Argien intentsitatea erregulatzear gain uneoro jakin ahalko dute sistema ongi funtzionatzen ari ote den ala ez.

## Bigarren fasea lantzen

Alkateak jakinarazi du puntu beltzak ezabatzearen bigarren fasea lantzen ari direla honezkeroko, udaleko Gizarte Zerbitzuetako Berdintasun sailarekin batera. Aurrekontua 500.000 eurokoa izango da. Hirugarren eta azken fasea, ondo bidean, 2025ean gauzatuko dute.

## Lanen egoera

- **Askatasunaren parkea:** inauterien ostean zutabeak eta beheko luminariak aldatzen hasi dira.
- **Somoto parkea:** laranjondoen patioan proiektoreak jartzeko zain.
- **Gaztainzulo kalea:** hiru farola jartzea falta da.
- **Uistin kalea:** eskuinaldean luminariak instalatzeko lanak hasteko zain.

## Zinegotzi kargua hartu du Ainara Elicechea Beitiak

Herritarren Arreta Zerbitzu berriaren proiektua eta ordenantzak onartu dituzte ohiko udalbatzarrean

## Txintxarri

Hamazazpi kidek osatzen dute udal korporazioa eta horietako batek berriki hartu du kargua, EAJ alderdiko Ainara Elicechea Beitiak. Anne Ugarteburu Cialceta ordezkatu du. Txalo zapa-

rrada batekin egin zioten harre-  
ra korporazioko kide berriari gainerako zinegotziek, hilaren 8an aurrera eramandako ohiko saioan. Kargua zin egin ondoren, lepokoa jarri eta alderdikideen alboan eseri zen Elicechea. Ja-

rraian, gai ordenarekin jarraitu zuten pleno aretoan bildu zirenek.

Herritarren Arreta Zerbitzu berriaren proiektua eta ordenantzak onartu zituzten aho batez. Euren alderdiko kideen baiezko botoen zergatia azaldu zuen EH Bilduren bozeramaile Esti Garmendia Arrietak: "Espero dugu egitasmoak konponetzea udalak gaur egun dituen gabeziak; jarraipen zorrotza egingo dugu". Bestalde, Mendebaldeko Sahararen aldeko manifestua onetsi zuten.



Elicechea, lepoko gorria zintzilik, EAJko gainerako zinegotzien ondoan. ISAAC FARRE

## KOMUNITATEA



Eraikuntza praktikak egin zituzten ikasleek. EAGI ERAIKUNTZA ESKOLA

## Elkartrukea egin dute EAGI eskolako eta Oriarteko ikasleek

Eguneroko errutinatik atera eta ezagutzak partekatu dituzte bi hezkuntza zentro horietako estudianteez

## EAGI eraikuntza eskola

Hilaren 7an Oriarte institutu-ko DBH3ko hamasei ikasle EAGI ikastetxean izan ziren, zenbait eraikuntza praktika egiten. Aurreko urteetan ere egin izan dute halako elkartrukea eta bertan EAGIko ikasleek irakasle lanetan jarduten dute.

Bisita horren bitartez Oriarte institutuko ikasleek herrian bertan lanbide heziketa ikasteko eskaintza zein den ezagutu dezakete.

## Komunitatea zabaltzen

Aurreko bi paragrafo horiek ez ditu TXINTXARRI-ko kazetari batek idatzi, EAGI Eraikuntza Eskolako kideek baizik, *Komunitatea* izeneko ataleko kide egin delako berriki. Doa-

ko tresna hori erabili nahi duten elkarte edota eragileek herri aldizkariarekin jarri behar dute harremanetan, [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora idatzita edo 688 68 35 10 telefono zenbakira deituta (WhatsApp mezu bat ere bidal dezakete interesdunek).

Lantaldearekin kolaborazioa nolakoa izango den adostu ostean erabiltzaile izen eta pasahitz bana jasoko dituzte komunitateko kideek, edukiak prestatzen hasi ahal izateko.





Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendari Isaac Palencia ezkerrean, eta Agustin Valdivia, alkatea, eskuinean. TXINTXARRI

# Seme-alaben heziketan arreta jartzen jarraitzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiko TREBA Gurasoak ekimenaren hirugarren aldia iragarri du. Buruntzaldeko udalekin lankidetzan aurrera eramango du, eta, azaldu duenez, hilaren 15etik martxoaren 13ra bitarte, bederatzita tailer antolatuko ditu; horietako bat, herrian

## Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria saileko zuzendari Isaac Palencia eta Agustin Valdivia alkateak TREBA Gurasoak egitasmoaren aurtengo hirugarren aldia aurkeztu dute berriki. Aurreko edizioetako balantzea eginez hasi du hitzartzea Palencia, eta, esan, "erabateko arrakasta" izan duela 2022-2023 ikasturteko programazioak. Gaineratu du "guraso askok" parte hartu zutela eskualdean antolaturiko tailerretan. Hori hala izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak eta Buruntzaldeko udalek TREBA Gurasoak egitasmoarekin aurrera jarraitzea ez ezik, hori indartzea erabaki dute aurtengoa; horrela, 21

hitzaldi iragarri dituzte, hau da, 2022-2023 ikasturteko eskaintzarekin alderatuta, %90eko igoera izan du aurtengoak.

## Mintzagai bat baino gehiago

Landuko diren gaien artean, buru osasuna, pornografia eta pantailen erabilera nabarmendu ditu Palencia. Honako adierazpenok egin ditu gero: "Haur eta nerabeen guraso guztiek, noizbait, laguntza behar dute hezkuntza prozesuan duten zeregina behar bezala betetzeko. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak prestakuntza ekimen bat abiatu zuen, haurren eta nerabeen bizi kalitatea eta aukerak hobetzeko asmoz, gurasotasun positi-

boan oinarritutako gurasoen prestakuntzaren bidez".

Prensaurrekoa amaitu aurretik alkateak hartu du hitza, eta, esan, TREBA Gurasoak egitasmo "ezagun eta sendoa" dela. Azpimarratu du, gainera, "geroz eta onarpen eta babes handiagoa" duela, eta eskertua agertu da hori aurrera eramateaz arduratzen direnekin. Lasarte-Orian izango den hitzordua ere ekarri du gogora; *Pornografia gaur egungo sexu heziketa ote?* hitzaldia eskainiko du Eider Goiburua sexu hezitzaileak. Hilaren 21ean izango da, kultur etxeko hitzaldi aretoan, 18:00etan, euskaraz. Buruntzaldean aurrera eramango diren besteak [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) web atarian kontsulta ditzakete interesdunek.

NEURE KABUZ  
ASIER ODRIOZOLA

## Ihauteriak

Beste behin ere joan dira aratusteak eta beste behin ere harro herrian sortu den giroarekin. Guztiok dugu jarrera zehatz bat jai honen aurrean: batzuk iritsi zain egoten gara eta beste batzuk berriz lehenbailehen pasatzea nahi izaten dute. Begiratu atzera bota eta ez dakit esaten behar besteko zehaztasunarekin noiz eraldatu ziren inauteriak Lasarte-Orian gaur egun duten era eta arrakastarekin, baina, dakidana da, larunbat hori herritar askoren festa-egutegiko maiteenetako bihurtu dela. Ez da gainera inoren aurrean erantzun behar, ez da maila jakinik erakutsi behar. Eguneroko itxura, rol, tankera eta izaeratik apur bat aldentzea nahikoa da karnabalak ospatzen ari garela sentitzeko. Nolabaiteko askatasuna sentitzeko. Inauteria ezer izatekotan askatasun ariketa baita. Ezin inork inori "gaizki zoaz" edota "nola liteke modu horretan jantzi" esaterik. Halako zerbait esaten duena da egun zehatz horietan lotsagarri geratzen dena.

Hori bai, irudimen handiko mozorroak ikusi baditut ere, beste behin, Tolosa garaile. Gure aldean hamarkada askotako tradizioa dute eta ia-ia urte osoan zer eta nola jantzi pentsatzen botatzen dute denbora. Emaitza ikusgarria izaten da. Inbidia? Ez! Gozame-na! Izan ere, gauza askoren artean ona dute inauteriek zenbait egunetako jaiak izanda nork bere herrian ospatu ditzakeela egun batean eta biharamonean Tolosakoei bisita egin. Pasa berriak diren arren, ariketa bat proposatu nahi diot neure buruari: urtebeteko epea izanik, ea tolosarrei itzal egingo dien ezer bururatzen zaidan 2025erako. Ez dut uste baina saiatzea bera polita izan liteke. Proposamenak onartzeko prest!!

## Udalerriak 38 urte bete ditu

1986ko otsailaren 15ean sortutako batzorde kudeatzaileko kideek gidatu zituzten Lasarte-Oria udalerririk independente gisa eratzeko pausoak. Ama Brigitarren komentuan egin zuten aurreneko batzarra, Ana Urchueguia sozialista lehendakari izendatuta. Ekitaldi horretan gauzatu zuten, hortaz, bizilagunen ametsa. Urtemuga oroitzeko udalak bandera jarri du udaletxe zaharreko balkoian.



TXINTXARRI

bertako  
igogailuak | ascensores  
KORRIKAN ERE

EUSKARA,  
GURE HELBURU  
PARTEKATUA

943 903 450 bertako.eus



# Itsasoaren hondoan murgildu dira herritarrak

Hasi da Lasarte-Oriako XVI. Cimasub Itsaspeko Zinema Zikloa, 'Etorkizun urdin bat eraikitzen' lelopean. Hiru proiektiotan 23 film labur eta hiru dokumental emango dituzte, doan, kultur etxean, 19:00etan. Hurrengo biak hilaren 19an eta 26an izango dira

## Txintxarri

Hiru proiektioak, herriko ikaste-teeetako ikasleekin egingo duten Txikizikloak eta argazki erakusketa batek osatuko dute itsaspeko zinemari buruzko aurtengo jardunaldia, Real Sociedad taldearen urpekaritza sailak aurrera eramaten duena, erakundeen eta Danok Kide elkartearen laguntzarekin. *Etorkizun urdin bat eraikitzen* izango da leloa: "Horren bidez, gogorazi nahi dugu denon ardura dela itsasoko ekosistema zaindu eta, batez ere, berreskuratzea". Hurrengo bi emanaldiak hilaren 19an eta 26an izango dira, kultur etxean, doan, 19:00etatik aurrera.



Herritarren jakin-mina piztu zuen lehen emanaldiak. TXINTXARRI



Kontzientziario ekologikoaren lehen saria irabazi du irudi honek. JULIO MARTINEZ

## Erakusketa, hilaren 29ra arte irekita

Real Sociedad taldeko urpekaritza saileko David Sanchez Carreterok azaldu duenez, esposizio horretako argazki batzuk azaroan egindako Donostiako zikloan saritutakoak dira, eta, beste batzuk, aitortzarik jaso ez arren, saridunak bezain ikusgarriak. Argazki lehiaketa bat egiten dute urtero eta aurtengo aldian 500 irudi bidali dituzte mundu osoko argazkilariek.

Lasarte-Oriako erakusketa kultur etxeko lehen solairuan ikus dezakete herritarrek, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara. Topatuko dituzten irudietako bat da artikulu hau ilustratzen duena, Julio Martinez argazkilaria murtziarrak ateratakoa. Hegazti harrapari bati ateratzen zion argazkia, arrainak ehizatzeke asmoz ur azpian murgildu zenean. Sare batean geratu zen harrapatuta.



Inauteriak amaituta, San Pedro Jaiak prestatzen hasi da udala; horiek herritarrekin batera diseinatu nahi ditu. TXINTXARRI

# Herriko festak elkarrekin diseinatzeko asmoz

Ekainaren 28an hasi eta uztailaren 2an amaituko dira aurtengo jaiak, eta horiek gozatu aurretik, prestatu egin behar izaten dira. Horrela, sanpedroak diseinatzeko hasi da udala, eta horiek herritarrekin prestatu asmoz, bi parte hartze prozesu abiatuko ditu

## Txintxarri

Parte hartze prozesu horien berri eman dute Agustin Valdivia alkateak, Gazteria eta Festak arloko zinegotzi Txus Alonsok, eta Parte Hartze saileko batzordeburu Nagore Duranek. Iragarri dute datorren astelehenetik aurrera, hilak 19, aurkeztu ahal izango dituztela lasarteoriatarrek euren proposamenak. Bi modutara eman ahalko dituzte iritziak herritarrek. Batetik, proposamenak sarean egiteko aukera izango dute; hala egin nahi dutenek, udalaren web ataria erabili beharko dute ([www.lasarteoria.eus](http://www.lasarteoria.eus)). Bestetik, herritarrek etxean jasoko dituzten eskuorriak udal postontzietan utzita; honako udal eraikinetan aurki daitezke postontzi horiek: Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroa, kultur etxea, Gaztelekua, udaletxe arkupe zaharrak eta kiroldegia. Martxoaren 3ra arte izango dute iritziak emateko aukera; hala ohartarazi dute udal ordezkariak.

## Eman beharreko informazioa

Kultur jarduerari dagokien parte hartze prozesuan, aurrean ere

hiru multzotan banatu dituzte egin daitezkeen proposamenak. Alde batetik euskal musika taldeak proposatu ahal izango dituzte herritarrek; bestetik, nazio mailakoak; eta, hirugarrenik, musika taldeak ez diren bestelako jarduerak ere iradoki ahal izango dituzte, hala nola, antzerki obrak, jokoak, eta abar.

Omenduari dagokion parte hartze prozesuan, aldiz, aitzatespena jasoko duen pertsona izatea nahi duten norbanakoaren edo eragilearen izena zehaztu behar dute herritarrek, eta, bestetik, hautagai hori zergatik aukeratu duten ere arrazoitu beharko dute; hautagai horrekin harremanetan jartzeko bide edo modua zehazteko ere eskatu dute udal ordezkariak.

Bestalde, udal ordezkariak gogorazi dute hirugarren parte hartze prozesu bat ere deituko dutela datozen hilabeteetan; herriko jaiak iragarriko dituen afixa aukeratzeko hain zuzen ere. Horri dagokion informaziorik, ordea, ez dute eman; aurrerago zabalduko dutela ohartarazi dute.





Ione Zabala eta Jose Antonio Vitoria, Ados Teatroaren bulegoko eskaileretan, 'Lagun beltz asko' lanaren kartela eskuetan dutela. TXINTXARRI

# "Beharrezko" istorio bat

Ados Teatra konpainiak 'Lagun beltz asko' antzezlaren emanaldia egingo du hilaren 24an, kultur etxean, 20:00etan. Talde horretan produkzio lanak egiten dituen Ione Zabala herritarrarekin eta Asier Sota antzezlearekin hitz egin du TXINTXARRI-k

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Ados Teatra antzerki konpainiaren bulegora igotzeko eskaileretan atera dugu "promozio" argazkia, hitzordu hau iragartzeko: hilaren 24an aurrera eramango du *Lagun beltz asko* ikuskizunaren emanaldia gure herriko kultur etxean, 20:00etatik aurrera. Txoko hori bada, nolabait, talde horren historiaren errepa-so bat, erakusketa bat, ikuskizunak iragartzeko kartelez beteta baitago. 1994an sortu zuten proiektua Garbi eta Koldo Losada anai-arrebek eta lehenengoaren senar Jose Antonio Vitoria zinema zuzendari eta gidoigileak. Autoretza obra propioak ala beste batzuen lanen adaptazioak izan, pentsa zenbat emanaldi egin dituzten orduetik...

Lasarte-Oriara ekarriko duten ikuskizuna 2022tik ari dira aretoz areto erakusten. Emanaldi

hori iragartzeko argazkian Vitoria bera eta Ione Zabala atera dira, Ados Teatroan iazko urtariletik produkzio lanetan diharduen lasarteoriatarra. Berarekin eta *Lagun beltz asko*-ko hiru antzezleetako bat den Asier Sotarekin hitz egin du TXINTXARRI-k, antzezlari horretaz eta antzerki taldearen gainerako egitasmoetaz.

"Familiako, etxeko giroko" konpainia batekin topo egin du Zabalak, esku artean duen guztia "mimo handiz" lantzen duen talde batekin. Bere eguneroko jarduna, hitz batean laburtzekotan, "antolakuntza" litzateke. Bestela esanda, ikuskizunaren produkzio lana, oholtza gainean ikusten ez dena: barne eta kanpo eragileekin harremandu, antzezlariaren aurrera eramateko giza baliabide nahiz teknikoak kudeatu (landa ekoizpena), di-

raguntzei adi egon, sare sozialak kudeatu, sormen lan batzuk egin... Herritarraren errutina ez da bereziki lasaia, baina "oso gustura" ari dela kontatu du eta "sorpresa ederra" eramane duela konpainia hori barrutik ezagutu duenean.

## Giza Eskubideak Eszenara

Ados Teatra 2016tik aurrera eramaten du Zabala asko motibatzen duen proiektu bat: Giza Eskubideak Eszenara. "Arte eszenikoen bidez giza eskubideei buruz hausnartzen dugu: sektoreko profesionalen eta kolektibo zaurgarrietako kideak lankidetzan aritzen dira eta ikuskizun bat sortzen dute elkarrekin, gidioetik hasi eta eszenatikira eramane arte", azaldu du.

Elkarlan horren azken fruitua *Inor ez dago urrun / Nadie está lejos* diziplinarteko ikuskizuna

izan da. Dokumental bat ekoiztu zuten lehenengo eta kalean edo "antzerkiaren kanpoko espazioetan" ikusteko performance bat gero. "Pobrezia, etxegabetasun edota zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonekin batera landu dugu".

Ados Teatroan bakarrik ez, saltsa gehiagotan ere badabil herritarra. Batetik, diziplina artistiko desberdinetan dabilzan herriko zenbait emakume sortzailek eraturako Ihitten elkarrean (Emakumearen Zentroko ikastaroen eskuorriko ilustrazioak egin ditu berriki, adibidez), eta, bestetik, margolaritza eskolak ematen Urnietako Lekaio Kultur Etxean. "Lasarte-Orian ere egin nahiko nuke horrelako zerbait, oso pozik ari naiz".

## Jokabidearen kodeak arakatzeko

Gure herrian irakasle izandakoa da Asier Sota donostiarra: ez margolaritza saioak ematen, antzerkikoak baizik, Kukuka eskolan. "Maitasun handiz" gogoratzen du garai hori: "Bi talde izan nituen, Lasarte-Orian bat eta Añorgan bestea. Biekin bizitakoak goxo gordetzen ditut memorian: egiten genituen lanak guk sortzen genituen, harremana oso polita izan zen, eta, esperientzia, zoragarria".

Antzerki irakasle izan ala antzezle gisa jardun, batak ez du zerikusirik bestearekin. Bigarren zeregin hori burutzen du Sotak *Lagun beltz asko* piezan. "Arrazakeriaren gaia hainbat modutan islatuta ikusi dugu. Niretzat, lan hau berezi eta beharrezko egiten duen kontua da desberdinekiko dugun jokabidearen kodeen barruan sartzen garela, gure kasuan, kanpotarra den pertsona batekiko ditugunetan". Luis tabernariaren papera egiten du donostiarra. Aspaldiko lagun bat, Xabier (Asier Hormaza), bisita egitera joango zaio, bere bizitza pertsonalean gertatu zaizkionak kontatzera. Luisek azkar itxi nahi du baina Xabierrek han geratu, hitz egiteko. Bat-batean, afganiar jatorriko gizon bat (Ramon Ibarra) sartuko da eta dena nahastuko du. "Bi adiskideek hirugarren pertsona horrengan klixeko mordo bat proiektatuko dituzte nahiz eta ez duten ezertaz ezagutzen. Errazagoa zaie estereotipoen arabera epaitzea kanpotar hori, berarekin hitz egin eta ezagutzen saiatzea baino".

## 'Lagun beltz asko', fitxa teknikoa

Honela definitu dute *Lagun beltz asko* antzezlana Ados Teatra konpainiako kideek: "Gure sinesmen eta printzipioen flotazio lerroari zuzenean begiratzen dio kontakizunak. Dramaturgia probokatzailerak, elkarriketa biziz betetakoa eta barretik dramara etengabe igarotzen dena".

### 'Lagun beltz asko'

- **Gidoia eta zuzendaritza:** Garbi Losada.
- **Jatorrizko istorioa eta ekoizpen exekutiboa:** Jose Antonio Vitoria.
- **Antzezleak:** Ramon Ibarra, Asier Hormaza eta Asier Sota.
- **Argiztapena:** Xabi Lozano.
- **Eszenografia eta jantziak:** Ikerne Gimenez.
- **Jatorrizko musika eta soinu espazioa:** Javier Asin.
- **Iraupena:** 70 minutu.
- **Generoa:** Komedia beltza.



Orain arte egindako emanaldiek "harrera ona" izan dutela esan du Sotak. "Jende dexente etorri da *Lagun beltz asko* ikustera eta denbora azkar pasatzen zaiela esaten dute. Gainera, ikus-entzule asko ukituta atera dira aretotik".

Sotaren ustez, horretan eragina du emanaldia zuzeneko izateak. "Arte diziplina edozein izanda ere, horrelako saioek beste indar bat dute, telebista edo zinema pantaila batek transmititu ezin ditzakeen harremanak". Horrekin ez du esan nahi filmak edo telesailak ikusi behar ez direnik, baizik eta euskarri guztiei tokia egin, adibidez, antzerkiari. "Bidaia gogorra baina polita egiten dugu *Lagun beltz asko*-n; merezi du ikustea".

# Ostadarreko taldeek, merezitako garaipena

I. mailako zein infantil errendimendu mailako taldeek ederki egin diete aurre euren aurkariei. Lehen taldeak azarotik izan duen garaipen lehorteari amaiera eman dio. Infantilak neurketa zirrargarria irabazi eta sei talde onenen multzoan jokatu du bigarren fasea

## Txintxarri

Ostadar Saskibaloi ataleko bi taldek jokatu zuten jardunaldia hilaren 9an eta 10ean. Biek borrokatutako garaipena erdietsi zuten eta infantilen kasuan, mailako sei onenen artean kokatu da bigarren fasea jokatzeko.

I. mailako taldeak Alde Zaharra Casa de La Rioja taldearen aurka neurtu zituen indarrak hilaren 9an, Maialen Chourraut kiroldegian. Azarotik partidari ez zuen irabazi Gaizka Urreizti eta Beñat Eleiceguiren taldeak

eta Alde Zaharraren aurka kendu zuten arantza.

Ostadarreko jokalariek gogotsu hasi zuten norgehiagoka eta partida irabazteko nahia zutela argi utzi zuten hasieratik. Donostiako taldeak, aldiz, ez zien bidea erraz jarriko eta lehen bi laurdenak (15-14 eta 18-14) irabazteko borrokatu behar izan zuten etxeko taldeak.

Atsedenaldiaren ostean, aurkariak lehen zatiko nekea sumatu zuten. Egoeraz baliatuz, urdin-beltzek joko erritmoa



Ostadarreko jokalaria, borrokan, saskiratze eremuan sartzeko. TXINTXARRI

bizitu eta pixkanaka aldea handitu zuten. Alde Zaharrak zona-defentsa ezarri zuten etxeko erasoak mantsotu nahian, baina Ostadarreko jokalariek hutsuneak aurkitu eta saskira iritsi ziren errenta handituz. Azken emaitza 73-53koa izan zen.

Partidaren amaierako txistua jotzearekin batera garaipena eskuan zutela ikusirik jokalaria eta entrenatzaileak hunkitu ziren.

## Maila mantendu

Infantil errendimendu mailan, aldiz, Ostadar SKTko gazteek promozioa izan zuten jokoan hilaren 10ean. Talde urdin-beltzak urrea mailako seigarren postuan amaitu du lehen fasea eta Dikar Andraitz zilar mailako lehen taldearen aurka lehiatu da hurrengo fasean, sei talde onenen artean egon eta Euskadiko txapelketarako sailkapena jokatu ahal izateko. Legazpiko Bikuña kiroldegian izan zen buruz burukoa eta ederki izer-

ditu behar izan zuten Lasarte-Oriako taldeak puntu batengatik gailentzeko.

Lehenengo laurdenean etxeko taldeak bere maila erakutsi eta markagailuan aurreratu zen, 17-8. Bigarren laurdenean neurketak berdintzen jarraitu zuen, baina bi minutu faltan 0-11ko partzial bati esker, neurketan sartzeari lortu zuten Ostadarrek.

Hirugarren laurdenean bi taldeak ederki jardun ziren erasoan eta guztira bien artean 49 puntu sartu zituzten. Tamalez etxeko taldeak aurretik jarraitzen zuten, 55-48. Azkeneko laurdenean saria eskuratu nahian ahal zuten guztia eman zuten bi taldeek. Amaitzeko lau minuturen faltan lasarteoriarrek neurketa 57na berdintzea lortu eta ostean, hiru saskiratzeri esker, zortzi puntuko aldea ireki zuten.

Legazpiarrak azken minutura arte markagailua berdintzen saiatu arren, puntu batera geratu ziren eta Ostadarrek eskeratu zuten garaipena.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
<b>OHOREZKO ERREGIONALA</b>
Touring KE - Ostadar SKT Igandea. 19:45. Fanderia, Errenterian.
<b>GORENGOEN MAILA</b>
Ostadar SKT - Roteta CD Larunbata. 16:25. Michelin kirol gunean.
<b>ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA</b>
Behobia CD - Texas Lasarte CF Larunbata. 15:30. Antia, Irunen.
<b>ERREGIONAL I. MAILA, KOPA</b>
Ostadar SKT - Arrupe Chaminade CDDF Igandea. 18:30. Michelin kirol gunean.
<b>OHOREZKO JUBENIL MAILA</b>
Gure Txokoa KKE - Ostadar SKT Igandea. 18:00. Matzada, Bera, Nafarroan.
<b>JUBENILEN I. MAILA</b>
Ostadar SKT B - Landetxa KTCD Larunbata. 14:40. Michelin kirol gunean. Texas Lasarte CF - Intxurre KKE B Larunbata. 18:20. Michelin kirol gunean.
<b>OHOREZKO KADETE MAILA</b>
Ast. Mundarro FKE - Ostadar SKT Larunbata. 12:30. Zarkumendegi, Astigarragan.
<b>KAD. I. MAILA, GIPUZKOAKO KOPA</b>
Ostadar SKT (neskak) - Hondarribia FE Larunbata. 13:00. Michelin kirol gunean. Texas Lasarte CF - Zarautz KE B Igandea. 15:00. Michelin kirol gunean. Tolosa CF C - Ostadar SKT B Igandea. 15:00. Usabal, Tolosan.
<b>KAD. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA</b>
Internacional CD - Ostadar SKT C Igandea. 13:30. Herrera, Donostian.

ARETO FUTBOLA
<b>I. MAILA</b>
Eguzki Arkupe Rehab. - Antiguoko KE Belmer Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
<b>III. MAILA</b>
Eguzki ISU Lehoak - Janrablu Futsak KK Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>GAZTEEN MAILA</b>
Eguzki Bod. Ayesa - Eskoriatza KE Larunbata. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>KADETE MAILA</b>
Coinbroker Aloña - Eguzki G. Goxua Larunbata. 16:00. Zubikoa kirol., Oñatin.
<b>SASKIBALOI</b>
<b>I. MAILA</b>
Eguzkitza Sagardotegia TAKE - Ostadar SKT Larunbata. 17:00. Usabal kirol., Tolosan.
<b>III. MAILA</b>
Ostadar SKT - Diego Valor Barbershop BKE (atzeratutako neurketa) Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol. Ostadar SKT - Antigua Luberrri KE Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>JUNIOR ERRENDIMENDUA</b>
Luberrri Lander Simulation - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Benta Berri kirol., Donostian.
<b>KADETE ERRENDIMENDUA</b>
Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Benta Berri kirol., Donostian.
<b>KADETE PARTAIDETZA</b>
Ostadar SKT - Bera Bera Albistur Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

BOLEIBOLA
<b>JUBENIL MAILA</b>
Ostadar SKT - Aldapeta Maria C Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>KADETE MAILA</b>
Izardi Bi - Ostadar SKT Larunbata. 11:00. Lizardi BHI, Zarautzen.
<b>IGERIKETA</b>
<b>ALEBIN LIGA</b>
Buruntzaldea IKTKo alebinek Ligako laugarren jardunaldia lehiatuko dute. Larunbata. 17:30. Udal kirol., Hernanin.
<b>KZL LIGA</b>
Buruntzaldea IKTKo benjaminen ligako hirugarren jardunaldian parte hartuko dute. Larunbata. 15:30. Udal kirol., Hernanin.
<b>JUDO</b>
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
LOKEko judoka gazteek infantil mailako Gipuzkoako txapelketako bigarren fasea jokatu dute. Larunbata. 15:00. Urrietako kiroldegian.
<b>PILOTA</b>
<b>TRINKETEA, 2. SENIORRA</b>
Behar Zana - Intza KE (Solano) Larunbata. 16:00 (1. partida). Ametsa trink., Irunen.
<b>UDABERRI TX., 2. SENIORRA</b>
Intza KE - Legazpi Larunbata. 12:00 (1. partida). Michelin kirol guneko pil.
<b>ESKUZ BINAKA, 2. INFANTILA</b>
Intza KE 2 - Oiarpe 4 Ostirala. 19:15 (1. partida). Loidibarren pil.

Intza KE 1 - Hernani 4 Larunbata. 19:15 (2. partida). Loidibarren pil.
<b>ESKUZ BINAKA, 3. INFANTILA</b>
Alde Zaharra 1 - Intza KE Larunbata. 16:00 (2. partida). Egia pil., Donostian.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>EUROPAKO NAZIOEN KOPA</b>
Alex Saleta herritarra Espainiako selekzioan deialdian sartu da. Georgia izango da aurkaria. Larunbata. 13:00. Tbilisi, Georgian.
<b>18 URTEZ AZPIKOA</b>
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - La Unica RT Larunbata. 10:00. Asti, Zarautzen.
<b>XAKEA</b>
<b>II. MAILA</b>
Taula A - Gros K Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.
<b>III. MAILA</b>
Bergara B - Taula B Larunbata. 16:00. Bergaran.
<b>ATLETISMOA</b>
<b>ESPAINIAKO TXAPELKETA</b>
Ostadar SKTko Naroa Furundarenak jauzi hirukoitzeko proba lehiatuko du maila absolutuko Espainiako txapelketan. Igandea. 11:30. Ourense, Galizian.
<b>EUSKADIKO TXAPELKETA</b>
Ostadar SKTko atletek jaurtiketa luzean 16, 18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketan parte

hartuko dute xabalina jaurtiketa proban. Larunbata. Durango, Bizkaian.
<b>DUATLOIA</b>
<b>AMOREBIETA-ETXANO DUATLOIA</b>
Zumeatarra taldean dauden Ibai eta Urko Izagirre zein Unai G. Somovilla Amorebieta-Etxanoko taldekako Duatloi proban lehiatuko dira. Euskadiko txapelketa ere egongo da jokoan. Larunbata. 16:00. Amorebieta-Etxano, Bizkaian.
<b>KIROL INKLUSIBOA</b>
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
Ostadar Inklusio taldeko kideak Gipuzkoako Eslalom txapelketa gurpildun aukian parte hartuko dute. Igandea. 11:00. Michelin kirol guneko pilotalekuan.
<b>IPAR MARTXA</b>
<b>DONOSTI NORDIC WALKING</b>
Donostia IX. Nordic Walking / Aspanogiren elkartasuneko IX. Ipar martxa egingo da. Igandea. 11:00. Sagues, Donostian.
<b>LASTERKETAK</b>
<b>ANTZUOLAKO 8 MILIAK</b>
Herriko ordezkariak Antzuolako 8 miliak proban izango dira lehiatzen. Larunbata. 10:30. Antzuolan.
<b>KOBAS KOBAS TRAIL</b>
Herriko korrikalariek eta taldeetako ordezkariak Kobas Koba Trail proban parte hartuko dute. Igandea. 09:00. Zestean.

# Herriko atleta gazteek ere, domina uzta

Euskadiko txapelketa lehiatu dute 16,18 eta 20 urtez azpiko mailetakoko atletak Donostiako belodromoan. Lasarte-Oriako kirolari gazteek lan ederra egin dute eta 11 domina jantzi dituzte; Espainiako txapelketarako gutxienerako bat ere egin dute

## Txintxarri

Lasarte-Orian inauteriak ospatzen ari ginen bitartean, herriko atleta gazteek 16, 18, eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketari egin zioten aurre hilaren 10ean, Donostian. Ostadar SKTko kideez gain, Real Sociedad taldean dauden Alex eta Ibai Alkain anaiek zein Naroa Elvirak eta Atletico San Sebastian taldeko kide den Hodei Mugiondok parte hartu zuten proba ezberdinetan eta ederki jardun ziren; guztira 11 domina jantzi zituzten.

20 urtez azpiko mailan luzera jauziko podiumean izan ziren bi herritar; Alex Alkain bigarren (6,47 m.) izan zen eta Ostadar SKTko Unax Riezu hirugarren (6,31 m.). Riezuk jauzi hirukoitzeko urrezko (12,05 m.) domina ere eskuratu zuen.

Azken proba horretan, baina 18 urtez azpiko mailan, nagusi izan zen Ostadar SKTko Oinatz Almagro (13,06 m.) eta taldekide June Garcia (10,70 m.) laugarren izan zen.

Kategoria horretan, Ostadarreko hiru kide brontzezko mailara igo ziren. Aiala Ramos eta Aitor Eizaguirre pisu jaurtiketa proban eta Iraia Alkorta 60 m. lasterketan.



Redondo (ezkerrean) eta Murgiondo (eskuinean). OSTADAR ATLETISMOA/J. MURGIIONDO

16 urtez azpiko gaztetxoak ere primeran aritu ziren. Ostadar SKTko Eider Redondo bitan igo zen podiumera; luzera jauzi proban garaile (5,18 m.) izan zen eta 60 metro hesi lasterketan bigarren (09,56). Eta taldekide Kevin Pinzak ere urrezko domina jantzi zuen pisu jaurtiketan (9,86 m.).

Horiez gain, Hodei Murgiondo herritarra hirugarren (2,45 m.) izan zen pertika jauzi proban.

Eskuratutako marka pertsonal berrien artean, azpimarragarria da Eider Redondok 60 m. hesi lasterketan lortutako denbora; horri esker, Espainiako txapelketarako sailka daiteke atleta gaztea.

## Herritarrek, Basauriko podiumean

Lokatz artean izan ziren herritarrek ere lehiaren 11n. Kirolaren Europako Saria Basauri Krosa jokatu zen Bizkaiko herrian eta bi herritar kategoria ezberdinetan bigarren sailkatu ziren, Aloña Mendiko Jon Presa absolutuan eta Zumeatarra taldeko Aimar Sukunza 23 urtez azpiko mailan.

Biek lasterketa nagusian parte hartu zuten. Proba pertsona gorren Espainiako txapelketa ere bazen eta guztiak batera egin zuten lehia. Lapatzako zirkuituan 5.082 metroko ibilbidea egin behar izan zuten. Lehena Daniel Planells (17.22) nazioartean lehiatzen den atleta gorra izan zen. Haren atzetik iritsi zen Jon Presa (17.34) helmugara eta Sukunzak, aldiz, 18.21 behar izan zituen bidea egiteko.



Nahia Zudaire (gorriz), proba hasteko prestatzen. BURUNTZALDEA IKT

## Nahia Zudaire, bide onean Bartzelonako Nazioarteko Trofeoan

Buruntzaldea IKTKo igerilaria SB7 mailako Europako errekorretik gertu izan da 50 m. bular proban

## Txintxarri

Igeriketa egokitutako Bartzelonako 9. Nazioarteko Trofeoa lehiatu zen hilaren 10ean eta 11n. Hitzordua AXA Ligako lehen jardunaldia ere izan zen. Estatu kirolariak batu ditu eta Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire ere izan da bertan igerian.

Zubietako gazteak lau probatan parte hartu zuen eta bere mailako (S8, SB7 eta SM8) lehen postuetan izan zen 400 m. libre eta 50 m. bular probetan.

Lehenen A finalerako sailkatu eta garaile izan zen 05.09,50 marka eginez.

B finalean izan zen 50 m. bular proban eta saio horretan lehen sailketa zen 44,58ko denbora eginez. Sailkapen orokorrean bederatzigarren izan zen. Buruntzaldea IKTKo prestatzaileek egindako marka azpimarratu

dute: "SB7 klaseko Europako errekor gisa duen 44,07tik oso gertu dagoen marka da".

Gainerako bi probetan sailkapen saioetan aritu zen Zudaire; 200 m. libre proban 02.38,19 egin zituen eta 50 m. libreetan, 35.28.

## Txikiak lehiatu

Eta hilaren 17an, Buruntzaldea IKTKo txikiak igerilekura jauzi egiteko txanda izango da Hernanin.

Arratsaldeari hasiera emateko KZL ligako hitzordua izango dute benjaminek eta ostean, alebinek ligako laugarren saioa lehiatuko dute.

Estilo libre, bular estilo eta bizkar estiloko saioei egingo diete aurrea igerilari gazteek eta txikienerako tximeleta estiloko erreleboa izango dute.

## Alex Saletak Espainiako selekzioarekin debuta egin du

Alemaniarren aurkako neurketan bigarren zatian sartu da zelaira herritarra; 27-5 gailendu da selekzioa

## Txintxarri

Debuta eta garaipena. Poztasun bikoitza du Alex Saleta herritarra. Lehengo astean errugby XVeko selekzioarekin entrenatu ostean, Europako Nazioen Kopako partidako deialdian sartu zen herritarra.

Hilaren 11n jokatu zuen Espainiako selekzioak Alemania-

ren aurkako partida Madrilen eta 63. minutuan atera zen Saleta zelaira. Lehen minutuetan alemaniarrek entsegu batekin izua sartu zieten arren, neurketari itzulia eman eta nagusi izan ziren lehoiak. Defentsa lan ederra egin zuten bigarren zatian eta horri esker 27-5 gailendu ziren.

Espainia hurrengo faserako sailkatu da garaipenarekin esker. Baina lehen faseko azken hitzorduari egin behar dio aurre lehenik hilaren 17an, Tbilisi, Georgian. Alemaniarren neurketan egindako lanarengatik, Beltzak RTko harrobiko kidea Georgiaren aurkako partida prestatzeko deitu dute.

Ez da hau Lasarte-Oriako ordezkariarik izan duen nazioarteko norgehiagoka bakarra izan.

Txapelketa bereko Errumani-Belgika partidaren Jon Ibisate herritarra marrazain lanetan izan zen. Gazteak Iñigo Atorrasagasti epaile nagusia lagundu zuen hi-



Saleta, partidako momentu batean. FERUGBY

laren 10ean Bucarest, Errumanian jokatu zen neurketan.

## Batean kale, bestean bale

Etxera itzuliz, Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeek jardun-

naldia izan zuten hilaren 10ean eta 11n.

Euskal Ligako bigarren taldea hamalau jokalarirekin aurkeztu zen Irunera Zaisa Txingudiren aurka lehiatzeko. Jokalariak ederki borrokatu arren, 22-15 galdu zuen. Beltzen entseguetako bat Mikel Ibisate herritarra egin zuen.

18 urtez azpikoak, aldiz, nagusi izan ziren Gernika Arratiko Urgozo taldearen aurka. Eneko Sanchez eta Joanes Arroyo herritarren entseguek, besteak beste, markagailua 5-29koa izatea lagundu zuten Gernikan lehiatu zen norgehiagokan.

# Hondarribiak eta Arraun Lagunak, banderak

Arraun denboraldia hasteko hilabete batzuk geratzen diren arren, traineruak indarrak neurtzen hasi dira denboraldiaurreko hitzorduetan. Sestaon eta Orion izan dira azken lehiak. Eta bietan herritarrek izan dira garaile: Sestaon, Hondarribia, eta, Orion, aldiz, Donostia Arraun Lagunak

## Txintxarri

Euriak atsedendaldia eman arren, haizeari aurre eginez lehiatu zen Oriaren jaitsiera hilaren 10ean, Orion. Estatu osoko zein maila ezberdinetako 87 traineru batu ziren Ori ibaian sari nagusia eskuratzeko asmoz. 2023ko denboraldiaren antzera indartsu dagoela erakutsi zuen Aiora Belartietia herritarra kide duen Donostia Arraun Lagunak taldeak eta denboraldiaurreko lehen bandera erdietsi zuen.

Emakumezkoen lehia, Gipuzkoa, Bizkaia, Alacant edo Kataluniako hamasei eskifaia izan ziren aurrez aurre.

Lugañene azken-aurreko atara zen ibaira. Helmugan 16.01,75 marka egin eta etxeko ontziak egiten zuenaren zain geratu zen. Orio Orialkik bi segundo gehiago behar izan zituen bidea egiteko eta, beraz, bandera Donostiara joan zen.

Intza Fernandez herritarra ere Hondarribiako eskifaian izan



Donostia Arraun Lagunak-eko kideak, banderarekin. DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK

zen borrokan. Astebete lehenago, Fernandez kide duen ontziak Sestaon garaikurra altxa zuen, baina oraingoan Berdeak bosgarren sailkatu ziren (16.39,68).

## Sestaon garaile

Hilaren 4an, XV. Julian Enrique jaitsiera jokatu zuten Bizkaiko herri horretan.

Proba hori ere erlojupeko moduan lehiatu zen eta Ama Gualupekoak hiru eskifaia bizkaitar izan zituen aurkari. Hondarribiarrek 15.14 behar izan zituzten ibilbidea egiteko. Bigarren Deusto (15.33) izan zen, hirugarren Kaiku (15.37) eta Ondarroak itxi zuen sailkapena (15.40).

# Infantil mailako Intza 1 bikoteak jaso du jardunaren fruitua

Nahiz eta Intzako ordezkariak ederki borrokatu, neurketa bakarrean lortu dute garaipena herriko pilotariak

## Txintxarri

Intza Pilota Elkarteko infantil eta alebin mailako kideek ez zuten jardunaldi xamurra izan hilaren 9-11ko asteburuan, infantil 2. mailako Oier Jauregi eta Ekhi Imaz bikoteak bakarrik eskuratu zuen garaipena. Gazteak neurketa borrokatu batean 16-18 garaitu zuten Oiartzun.

Maila bereko Mundarro-Intza partidari, aldiz, astigartarrak izan ziren nagusi, 18-8.

Infantilen 3. mailan neurketa zirraragarria izan zen Soraluçen. Unai Lizarraga eta Arkaitz Lasa

ederki borrokatu ziren eta 17-17ko berdinketarekin, azken tantoa etxekoan aldekoa izan zen.

Eta alebin mailan, Tolosako bikoteak Iker Garcia eta Lier Garmendia gainditu zituen neurketa hasieratik. Azken emaitza 26-3 izan zen.

Trinketean ere ez zuen zortirik izan Aritz Solanok. Neurketa ona egin arren, Intzako kideak Hernaniko Manterolaren aurka 33-40 galdu zuen. Solano neurketa osoan aurretik zen, baina, azken tantoetan eskuetako batean min hartu eta hernaniarra gailendu zen.

# Eslalom lehia, Lasarte-Orian

Ostadar Inklusioa taldeko kideek hitzordu garrantzitsua dute hilaren 18an, Michelin kirol gunean; Gipuzkoako Eslalom Txapelketa gurgil aulkian. 11:00etatik aurrera, herriko elkarteko zein Kemen taldeko hamar kirolariak bi proba ezberdinetan parte hartuko dute pilotalekuan izango den zirkuituan: erlojupeko proba eta banakako kanporatze proba.

**GIPUZKOAKO SLALOM TXAPELKETA GURPIL AULKIAN**  
"SERGIO FERNANDEZ MEMORIALA"  
CAMPEONATO DE GIPUZKOA DE SLALOM EN SILLA DE RUEDAS "MEMORIAL SERGIO FERNANDEZ"

Otsailak 18  
11:00  
LASARTE-ORIA (Michelin frontoia)

OSTADAR INKLUSIOA

# Harrobiko taldeek euskaraz entrenatzeko akordioa

Texas Lasartearra taldeak eta udalak 16 urtez azpiko taldeek euskaraz entrenatzeko proiektua jarri dute martxan

## Txintxarri

Texas Lasartearra CF eta Lasarte Oriako Udalak akordioa sinatu dute; proiektuaren helburua da lau urteko epean kirol elkarteko 16 urtez azpiko talde guztiak euskaraz entrena dezaten. Michelin kirol guneko zelaian ekimenaren nondik norakoak azaldu zituzten Texaseko lehendakari Angel Rosa Nevadok eta Euskara Batzordeko lehendakaria den Jon Antxordoki Rekondok, klubeko gazteen artean.

Udalak elkarteak lagundu du hizkuntza diagnosi bat egiten eta hurrengo hilabeteetan lau entrena-

tzailek -Markel De Los Mozos, Nora Navarro, Iker Sarasola eta futbol eskolako koordinatzailea ere baden Ander Acuña- hizkuntza entrenamenduko saioak jasoko dituzte euren taldeak euskaraz entrenatzeko abileziak beregana ditzaten. Saio horiek Kirolean Aholkulab aholkularitzako kideek emango dituzte.

Texas, aldiz, entrenatzaile berriak elebidunak izatera konprometitu da. Era berean, klubeko entrenatzaileek euskarazko UEFA C eta UEFA B futbol entrenatzaile ikastaroetan izena ematea lehenetsi dezaten onetsi du. Horrez gain,



Texas Lasartearrako kideak eta Euskara Batzordeburu Jon Antxordoki, aurkezpenean. ISAAC FARRE

denboraldiz denboraldi, entrenamenduak euskara hutsean egingo dituzten taldeen kopurua handitzen joatea ere sinatu du: 2024-25 ikasturtean, benjamin mailako talde guztietan; 2025-26 ikasturtean, Benjamin eta alebin mailako talde guztietan eta 2026-27 ikasturtean, benjamin, alebin eta infantil mailako talde guztietan.

Jon Antxordokik udalak ekimena beste futbol talde eta 16


urtez azpiko haur eta nerabeentzat jarduerak antolatzen dituzten herriko edozein erakunderi zabaltzeko asmoa duela azpimarratu du. Erakundeak herri osoan 16 urtez azpikoentzat antolatzen diren eskola orduz kanpoko jardueren hizkuntza diagnosis osatzeko asmoa duela ere igarri du, gerora bakoitzarekin esku hartze proiektu zehatzak abian jartzen hasteko.

# Eguzkiko hamar jokalarik, Euskadiko selekzioarekin lanean


Euskadiko selekzioko 12 eta 14 urtez azpiko mailako taldeek hilaren 13an hasi dute Espainiako Selektzio Autonomikoen txapelketako prestateta. Herriko areto futbol elkarteko infantil eta alebin taldeetako bosna jokalarik izan ziren Donostiako Deustuko Unibertsitatean egin zen lehen entrenamenduan. 12 urtez azpiko mailako taldean Julen Mauleon, Aimar Garcia, Unax Oliiva, Inhar Lasa eta Julen Murillo egongo ziren lanean; 14 urtez azpikoan, aldiz, Hugo Hernandez, Telmo Aranzadi, Alex Corchuelo, Julen Vilches eta Unax Urdangarin.

Taldeko arduradunak pozarren daude deialdiarekin eta gazteak hurrengo prestateta saioetan ere egotea espero dute.


## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Sofia**  
Zorionaaaak gure printzesa!! 3 urtez gure bizitza hankaz gora jartzen. Maite zaitugu !!! Aita eta ama.



**Luken**  
Zorionak zuri, zorionak beti... 3 urte polit hori. Maite zaitugu! Elene, Aita eta Ama.



**Jon Pello**  
Zorionak!!! Bihar gorputzaren defentsa irmoa edo ostikada latza? Dena delakoa izanda ere, hamaiketakoari markaketa ederra egingo diogu.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 16



Larunbata, 17




Igandea, 18



Astelehena, 19



Asteartea, 20



Asteazkena, 21



Osteguna, 22



## Urte askotarako!

**Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak**

### Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioz.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

### Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

### LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 16	GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 17	DE MIGUEL
IGANDEA, 18	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 19	DE URUE
ASTEARTEA, 20	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 21	LASA
OSTEGUNA, 22	GIL

### Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE URUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

### GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

### 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## SUDOKUA

		9	8			1	3	4
	3	6	4	7	5			8
	8	4		1	3		7	
4	5							3
3	9		5			2		1
	2	1		9				7
8			1	3	4	7		
		3		5	6			
	4	5	2	8		3	1	

Sudoku10.net

## OHARRAK

### Alboka Abesbatzaren urteko ohiko batzarra

Alboka Abesbatzak bere bazkideei dei egiten die, hilaren 29an ostegunarekin Mirentxun egingo den urteko batzar orokorrera gerturatu daitezten. Ohiko bilera 19:30ean hasiko da eta ez-ohikoa aldiz 20:00etan.

### Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

### GARAJEA

#### ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

### LANA

#### ESKARIA

Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetuei laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. 602 08 25 83.

### BESTELAKOAK

#### SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

### AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitzez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus  
943-37 14 48  
688 68 35 10

## ESKELA


**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943-37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

- Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
- Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



### Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

*Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz*



[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

**txintxarri**

[WWW.TXINTXARRI.EUS](http://WWW.TXINTXARRI.EUS)

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

**Administraria**  
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**  
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**  
Iratzi Zatarain.

**Laguntzaileak**  
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

**Banatzzaileak:**  
Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

**Informatika zerbitzuak**  
IZT Informatika.

**Publizitatea**  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**Egoitza nagusia**  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.  
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 16

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

Erabaki etorkizuna lelopean, Espainiako Kongresuko diputatu Mertxe Aizpurua herrira etorriko da ostiral honetan, solasaldira bertaraten diren bizilagunekin hitz egitera. 18:30ean hasiko da Lasarte-Oriako EH Bilduk antolatutako ekimena.  
**Mirentxu, 18:30ean.**

### LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren bideoforuma aurrera eramango du: *Robot Dreams* filma proiektatuko dute. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 6 euro balio dute horiek.  
**Kultur etxeko auditorioa, 20:00etan.**

## LARUNBATA 17

### LASARTE-ORIA Bertsolaritza

Literatur txokoak jakinarazi du hilaren 17an egingo duela urteroko topaketa berezia, bertso bazkari literarioa. Xirimiri elkartearen izango da, 14:00etan. Txartelek 25 euro balio dute (langabetuenek, 20) eta Jalgi, Ilargi nahiz Tiburtzio Artizar tabernetan eros ditzakete herritarrek.

Taldearen dinamizatzailerak den Aintzane Usandizagag jarriko dizkie gaiak Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio bertsolariei.  
**Xirimiri elkarte, 14:00etan.**



### LASARTE-ORIA Bertsolaritza

Literatur txokoak jakinarazi du otsailaren 17an egingo duela urteroko topaketa berezia, bertso bazkari literarioa. Txartelek 25 euro balio dute (langabetuenek, 20) eta Jalgi, Ilargi nahiz Tiburtzio Artizar tabernetan eros ditzakete herritarrek. Taldearen dinamizatzailerak den Aintzane Usandizagag jarriko dizkie gaiak Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio bertsolariei.  
**Hilak 17, larunbata, Xirimiri elkarte, 14:00etan.**

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Lasarte-Oriako familiek antzerkiak gozatzeko aukera izango dute; *Mr Boo* obra oholtzaratuko du Marie de Jongh antzerki konpainiak. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 4 euro balio dute horiek.  
**Kultur etxeko auditorioa, 17:00etan.**

## IGANDEA 18

### LASARTE-ORIA Zinema

Haurrentzako zinema proiektzioa iragarri du udalak; *El fantasma de*

*Canterville* proiektatuko dute. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 4 euro balio dute horiek.  
**Kultur etxeko auditorioa, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako zinema proiektzioa iragarri du udalak; *Los que se quedan* proiektatuko dute. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 6 euro balio dute horiek.  
**Kultur etxeko auditorioa, 19:30ean.**

## ASTELEHENA 19

### LASARTE-ORIA Proiektzioa

CIMASUB XVI. Itsaspeko Zinema Zikloaren aldi honetarako hautatutako ikusentzunezkoen bigarren proiektzioa. Jarduera hori Danok Kide Guraso Elkartearekin elkarlanean aurrera eramango dute.  
**Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.**

## LARUNBATA 24

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Helduentzako antzerkia iragarri du udalak; *Lagun Beltz asko* obra erakutsiko du Ados Teatro antzerki konpainiak. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 6 euro balio dute horiek.  
**Kultur etxeko auditorioa, 20:00etan.**

## IGANDEA 25

### LASARTE-ORIA Zinema

Haurrentzako zinema proiektzioa iragarri du udalak; *Thabo y el caso del rinoceronte* proiektatuko dute. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 4 euro balio dute horiek.  
**Kultur etxeko auditorioa, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako zinema proiektzioa iragarri du udalak; *La zona de interes* proiektatuko dute. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da; 6 euro balio dute horiek.  
**Kultur etxeko auditorioa, 19:30ean.**

## ASTELEHENA 26

### LASARTE-ORIA Proiektzioa

CIMASUB XVI. Itsaspeko Zinema Zikloaren aldi honetarako hautatutako ikus-entzunezkoen hirugarren eta azken proiektzioa. Jarduera hori Danok Kide Guraso Elkartearekin elkarlanean aurrera eramango dute.  
**Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.**

## ASTEARTEA 27

### LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Mendealdeko Sahararen askatasuna eta errefuxiatu bizi diren sahararrei elkartzasuna eta berotasuna adierazteko elkarretaratzea deitu du Sahararekin Elkartzasuna Lasarte-Oria taldeak. Maroko Saharatik at, Independentzia lelopean egingo duten kontzentrazioa aurrera eramango dute.  
**Okendo plaza, 19:30ean.**

## ASTEAZKENA 28



### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak kideek euren jaioterriaren egun handia ospatuko dute, ohorezko ardoarekin topa eginda.  
**Kultur etxeko auditorioa, 20:00etan.**



# JABI GALLAGA RUIZ

CP DE ARABA / ARABAKO ESPETXEA

Porillo San Miguel bidea, 1  
01230 - Langraitz Oka (Araba)

# Garaikoetxea-Landaberri

Haur eta Lehen Hezkuntza



Landaberri  
IKASTOLA  
LASARTE-ORIA

baikara  
Gipuzkoako IGEen federazioa



landaberri  
GURASO ELKARTEA

Zuen bidea  
gurekin  
egin nahi?

**AURREMATRIKULA**

**Otsailaren 7tik 23ra**

**INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA**

**[www.landaberri.eus](http://www.landaberri.eus)**

**943-37 06 62**